

## Sancti Petri uhartexka.

Sancti Petri uhartexka izen bereko errekaaren ahoaren parean kokatuta dago.

Gotorlekuaren hondarrak, gaur ikusten ditugunak, elezaharrekin bat egiten duen aitzinako historiaren lekuko dira, 3000 bat urte atzera eramaten gaituen historiarena.

*Gádir*, gaurko *Cádiz* sortu zuten Feniziarrek *Melkart* jainkoari tenplu garrantzitsu bat eraiki zioten hemen. Jainko hura *Herkules* heroi greko-erromatarraren aurrekaria zen, merkataritzaren eta marinelen babeslea.

Erromatar garaian, famatua zen tenplu hura, eta jende ospetsua bertaraten zen. *Herkules*-en gorpua hemen zetzala uste zuten, Antzinatean gurtzen zituzten beste erlikia batzuen artean. Heroi mitologikoa oroitarazten zuten estatua eta erliebeak zeuden bertan, baita bere omenez beti bizirik mantentzen zen sua ere.

Tenplua utzi zenetik XVI. mendera arte ez zuten ezer eraiki uhartexka honetan. Orduan, gazteluaren dorre nagusia jaso zuten, eta bi mende geroago, gainerakoa, pirata-erasoei aurre egiteko gotorleku gisa. XIX. mendean, bonbardaketak jasan zituen, eta gaur duen itxura hartu. Gaur, kaiok dira gazteluko biztanle bakarrak.

Uhartetik gertu, arrantzaleek utzitako aingurak pilatzen dira. Horien ondoan, metalezko uharrak bihurtu den merkatal ontzi txiki baten kroskoan, ur-azpiko organismo ugari aurkitzen dute babestokia. Arrantzaleek *argietako ontzia* deitzen dute, atuneta-sarearen baliza argitsuak hurbil baitaude.

Burdinazko zatien nahaspilaren artean, ontziaren zuakerrak bereiz daitezke, fosildutako animalia baten saiheutsak izango bailiran.

Gertu dago gaua. Ilargiak itsasaldiak eta ur masa handien mugimendua eragiten ditu; eta hauek gai organikoak ekartzen dituzte.

Txangurru bat, bere kamuflajea mantentzeko ahaleginetan ari da, eta, apur bat haratago, otarrain bat, kroskoaren hondar artean atsedena hartzen. Biek egonari handiz iluntzeari itxaroten diote ehizara irteteko.

Aszidia kolonia bat, lasai itxuraz, iragazketan ari da, ehunaka arrain zurrungariren mugimendu urduriari kasurik egin gabe. Korronteak eta hauek dakartzaten elikagaien iristea dira zalapartaren erantzule.

Baina hainbeste mugitzeak nekatu egiten ditu, eta hondoratutako ontziaren burdinen artean ezkututzen dira, une hauetan harrapari handiagoek erraz eraso ditzaketelako, aingirak, adibidez.

Dirudienez, aingirak ez du inoiz presaka ibiltzeko beharrik. Bere gorputz gihartsu eta luzea toki gaitzetan ere bizitzera moldatzen da.

Bizitokiaren arabera, bere larru lodi, labain eta ezkatagabea kolorez aldatzen da. Trebetasun handiz lerratzen du bere burua harkaitz eta zuloen, koral eta ontzi-sabai zaharren artean.

Ohikoa da bere azalean marka biribilak ikusi ahal izatea, bere janari gustukoenetariko batek eginak: Txipiroiak, hain zuzen ere.

Aingiraren ugalketa faseei buruz gutxi dakigu, arrabaroa heltzen den unean sakonera handiko inguruetara mugitzen baita; mila metroko sakoneraino jaitsi daiteke.

Ikusnahi amorratua da, baina,aldi berean, bista laburrekoa. Bere esploratze bidai etengabekoetan, hargailu kimiko batzuez baliatzen da ehizakiak jazartzeko.

Harrapari bakartia da, eta bere arrakasta etengabeko mugimendun datza; bere gorputzaren sendotasun ikaragarriak errazten dio hori. Bere ehizaldiek gau osoa irauten dute.